OSOKO BILKURA | SESION PLENARIA

TOKIA / LUGAR: Udaletxea
EGUNA / FECHA: 27/05/2015
HASIERA / INICIO: 19:30
AMAIERA/FINAL: 20:30

BERTARATUAK / ASISTENTES:

ALKATEA/ALCALDESA
Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda (BILDU)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:
Ziortza Bilbao Agirre (Bildu)
Jone Miren Arrasate Urquiaga (Bildu)
Miren Nekane Renteria Echevarria (Bildu)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (Bildu)
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Andrés Zearreta Otazua (EAJ-PNV)

IDAZKARI NAGUSIA/ SECRETARIO GENERAL
Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera

Busturiko Udaletxean, aipatu egun eta orduan, Alkatea Mahaiburu eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Udalaren Osoko Bilkura bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian burutzeko. Zulueta zinegotzi jauna gai-zerrendako laugarren puntua eztabaidatu bitartean sartu zen bileran. Saioan ebatzitakoaren fede Udaleko Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen.
Alkate Andreak aginduta (EAJko zinegotziak udal-hauteskundeetan lorturiko emitzengatik zoriondu zituen) hasiera eman zitzaion bilerari zinegotziei nahiko denborarekin banaturiko gai-zerrendaren arabera, honako akordioetara iritsita:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa, y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió el Ayuntamiento Pleno, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. El concejal Sr. Zulueta se incorporó durante el debate del cuarto punto del orden del día. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.
De orden de la Sra. alcaldesa (que felicitó a los concejales de EAJ-PNV por el resultado de las elecciones locales) dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

**1.- Aurreko saioko akta.-**

Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen 2015ko apirilaren 29eko akta.

**1.º.- Acta de las sesiones anteriores.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, aprobó el acta de la sesión de 29 de abril de 2015.

**2.- Alkatetza-dekretuak.-**

Osoko Bilkurari honako Alkatetza-dekretuen berri eman zitzaion:

- 10/15, ezkontza zibila egiteko ahalmena eskuordetzeari buruzkoa.
- 11/15, ezkontza zibila egiteko ahalmena eskuordetzeari buruzkoa.

**2.º.- Decretos de la Alcaldía.-**

El Ayuntamiento Pleno fue informado de los siguientes decretos de la Alcaldía:

- 10/15 sobre delegación para celebrar matrimonio civil.
- 11/15 sobre delegación para celebrar matrimonio civil.

**3.- Udal Energia Plana.-**

Alkate andreak zinegotziei jakinarazi zien “Alkateen iturerako bidean” ekimenari begira Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE) daukan lankidetza-hitzarmenaren barruan aurreikusita zegoela udalerriarentzako 2020. urtera arteko plangintza energetikoa. Horregatik, Tokiko Gobernu Batzordeak 2015eko otsailaren 4an erabaki zuen Udal Energia Planaren idazketa Esetec Smart Energy-ri esleitzea.
Aipatu enpresak dokumentu hori entregatu du eta bertan energia-hornidurаren egungo egoeraren azterketa (elektrizitatea eta bestelako erregaiak) dago, kanpoko argiztapena zein udal erakinak hobetzeko proposamenak bilduta.
Hori ikusita, Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Udal Energia Plana.

**3.º.- Plan Energético Municipal.-**

La Sra. Alcaldesa informó a los concejales de que, dentro del convenio de colaboración con el Ente Vasco de la Energía (EVE) para la iniciativa “Caminando hacia el pacto de los alcaldes y alcaldesas”, estaba prevista la planificación energética para el municipio hasta el año 2020. Por ello, la Junta de Gobierno Local acordó el 4 de febrero de 2015 adjudicar a Esetec Smart Energy la redacción del Plan Energético Municipal.
La citada empresa ha entregado el documento, que contempla un análisis del estado actual de los consumos energéticos (electricidad y otros combustibles) con propuestas de mejora tanto para el alumbrado exterior como para los edificios municipales.
A la vista de ello, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, aprobó el Plan Energético Municipal.

**4.- Udalbiltza Patzuergoan sartzea.-**

Jarraian, Udala Udalbiltza Patzuergoan sartu ala ez

**4.º. Integración al Consorcio Udalbiltza.-**

A continuación se debatió la integración del Ayuntamiento en

eztabaidatu zen.
Zearreta jaunak adierazi zuen oso erabaki garrantzitsua dela eta ez zirudiela egokia jarduneko Udalak ebaztea; eskaera egin zuen gaia mahai gainean uzteko, udalbatza berriak erabtz dezan.
Alkate andreak erantzun zion ados zegoela oso gai garrantzitsua dela, Udalbiltzak egungo muga administratiboak gainditu eta Euskal Herri osora hedatzen delako, eta babes garrantzitsua dakarkielako eremu babesgabeenetako euskaldunei. Horregatik guztiagatik, haren ustez, Busturiko Udala aipatu erakundean sartu behar da.
Zearreta jaunak hiardetsi zion egia dela eremu handiagoa hartzen duela, baina ez dagoela adostasun politikorik Patzuergo horretan parte hartzearen gainean; Alkate andreak esan zion haren zuzendariak hainbat talde politikotako kideak izan direla, EAJ barne. Zearreta jaunak ezeztatu egin zuen, esanez beste Udalbiltza bat zela eta egungoa ez dagoela EAJk ordezkatuta.
Busturiko Udala Udalbiltza Patzuergoan sartu ala ez bozketara eramanda, aldeko 3 boto, kontrako 3 eta 2 abstentzio izan ziren, beraz, berriro bozkatu zen: aldeko 3 boto, kontrako 4 eta abstentzio 1 izan zen emaitza; ondorioz, proposamena ez zen onartu.

el Consorcio Udalbiltza.
El Sr. Zearreta manifestó que se trataba de una decisión importante, por lo que no parecía adecuado que la adoptase un Ayuntamiento que se encuentra en funciones, por lo que pidió que quedase el asunto sobre la mesa para que lo decida la nueva corporación.
Le respondió la Sra. Alcaldesa para manifestar su conformidad de que se trataba de un asunto importante, ya que Udalbiltza es una entidad que supera las actuales fronteras administrativas abarcando toda Euskal Herria y porque supone un importante apoyo a los euskaldunes de las zonas más vulnerables. Por todo ello, consideraba que se debía de integrar el Ayuntamiento de Busturia en dicho organismo.
El Sr. Zearreta le replicó que es cierto que abarca más territorio, pero que no existe consenso político respecto de la participación en ese Consorcio, a lo que contestó la Sra. Alcaldesa diciendo que sus rectores han sido de distintos grupos políticos, incluyendo a EAJ-PNV, lo cual fue rechazado por el Sr. Zearreta que dijo que se trataba de otro Udalbiltza y que el actual no se encuentra representado EAJ-PNV.
Sometida a votación la propuesta de integración del Ayuntamiento de Busturia en el Consorcio Udalbiltza, se registraron 3 votos a favor, 3 en contra y 2 abstenciones, por lo que se procedió a repetir la votación, registrándose 3 votos a favor, 4 en contra y 1 abstención, siendo rechazada en consecuencia la propuesta de integración.

**5.º.- Datorren Korporazioari helarazteko Legealdiaren gaiei buruzko txostena.-**

Alkate andreak hurrengo testua irakurri zuen, 2011/2015 legealdiaren laburpen gisa:
“GOBERNATZEKO TRESNAK
Udaletxean sartu ginenean indarrean zegoen tresnetaz aparte honako hauek garatu ditugu eta hurrengo udal taldearen eskura jartzen ditugu:
TEP-PAL Dokumentua aprobatua dago. Bertan agertzen dira herria iraunkortasunean garatzeko lerro estrategikoak, ekintzak, epeak eta balizko diru laguntzak nondik lortu.
HAPO-PGOU Hasierako onarpena badu eta alegazio partikularrak erantzun dira (Bat traspapelatuta geratu da eta egin beharko da). Txosten sektorialak ere jaso dira (Kostas falta) Ura Agentziarekin batzartu egin behar da, txostenan jasotakoak talka egiten duelako jada emondako lizentzia batzuekin. BFAko karreteraseko teknikoekin batu gara eta euren aholkua aldeko txostena egiteko , bide gorriaren aukera biak marraztea da. Muruetako mugak BFAari bidali

**5 .º.- Informe sobre asuntos de la Legislatura para trasladar a la Corporación entrante.-**

La Sra. Alcaldesa dio lectura al siguiente texto como resumen de la legislatura 2011/2015:
“HERRAMIENTAS PARA GOBERNAR:
Al margen de las herramientas que estaban en vigor cuando nos incorporamos al ayuntamiento hemos desarrollado las siguientes que dejamos en manos de la siguiente corporación:
Plan de acción local. El documento está aprobado. Allí aparecen las líneas estratégicas para desarrollar la sostenibilidad local las actuaciones plazos y posibles fuentes de financiación
Plan General de ordenación urbana, ha sido aprobado inicialmente y se han respondido las alegaciones particulares. También se han recibido los informes sectoriales a excepción de costas. Hay que reunirse con la Agencia vasca del agua ya que el informe recibido contradice las licencias concedidas previamente. Nos hemos reunido con los técnicos de la

zaio azken akordioa eta euren erantzunaren zain gaude. Gauza hauek argituta HAPO- PGOUren Behin behineko onarpena egin ahal izango da udalan, hauxe da berton egin behar den azken tramitea.

dirección de carreteras de la Diputación Foral de Bizkaia que, para que su informe sea favorable, exigen que se deben reflejar las dos alternativas existentes para el bidegorri. Las fronteras con Murueta se han enviado a la Diputación foral de Bizkaia tras acordarse con ellos y se está a la espera de su respuesta. Aclaradas estas cosas el Plan General está en condiciones de recibir la aprobación provisional en el Ayuntamiento, último trámite que se realiza en la entidad local.

HERRI PARTAIDETZA ETA INFORMAZIO ARAUDIA/ROVIP. Herritarrentzako informazio eta partaidetza arautzen duen ordenantza, gardentasuna eta parte hartzea bultzatzeari begira egindako aldaketekin eguneratua.

DIRULAGUNTZEN ORDENANTZAK, bai herrian errejistratuak zein kanpoko irabazi asmorik gabeko diru-laguntzak nola banatu arautzen duen ordenantza eta plan estrategikoa onartuta.

TURISMO DIAGNOSTIKOA eta Plangintza estrategikoa. 2012an turismo ikaslearen praktiketatan egina. Egoera neurri baten garatua dago. Dokumentu honek eguneratzea behar du. (Hainbat ekintza TEP ean jasota dagoz)

BERDINTASUN DIAGNOSTIKOA ETA PLANA: Ekintza batzuk eginak dagoz baina asko dago garatzeko oraindino. Berdintasun arloan gazteriaren ikuspegiari buruzko txostena dago. Oso sinplea da eta beharrezkoa litzateke gazteriaren egoerari buruzko diagnostiko sakon bat egitea. Busturiko emakumeen historia liburua argitaratu da baina argazki batekin arazoak egon dira (ibegrafik egin du liburua eta eurekin egon behar da arazoa konpontzeko)

EUSKERA PLANA ESEP. Plan hau urtero garatu eta ebaluatu beharko da, UEMA eta Bai Euskarari erakundeekin adostuta ditugun helburuak betetzeko.

DIAGNOSTIKO SISTEMAS FORESTALES. 2011an onartua, basogintzan iraunkortasun irizpideetan oinarrituta. Arlo honetan diru-laguntzak lortzeko beharrezko tresna da. TEP ean ere bertoko ekintza batzuk jasotzen dira.

UDAL ENERGIA PLANA/PLAN ENERGETICO MUNICIPAL : Busturiko argiteri publikoa eta udal eraikuntza guztien egoera azaltzen du eta eraginkortasuna lortzeko egin beharreko ekintzak eta aldaketak azaltzen ditu. Hobekuntzen planifikazioa eta lehentasunak eta diru iturriak (EVE, IDAE, INGURUMEN sailak EJ eta BFA) posibleak jasotzen ditu.

Parte bat egina dago baina hobetzen jarraitzeko hainbeste gauza dagoz. Plan hau behar beharrezkoa da Alkate eta alkatesa itunean parte hartzeko. Itun horren barruan dagozenentzako diru laguntzak handitu egiten dira.(Pacto de

PARTICIPACIÓN VECINAL Y NORMATIVA SOBRE INFORMACIÓN. ROPIV. La ordenanza que regula la información y participación vecinal ha sido actualizada con miras a impulsar la transparencia y la participación.

ORDENANZA DE SUBVENCIONES; está aprobada la ordenanza y el plan estratégico para el reparto subvenciones a las asociaciones registradas en el municipio así como los de fuera sin ánimo de lucro.

DIAGNÓSTICO DE TURISMO y plan estratégico: se hizo el año 2012 por una alumna en prácticas. En cierto modo está desarrollado. Hace falta actualizar los documentos. (Muchas acciones están recogidas en el Plan de Acción Local.

DIAGNÓSTICO DEL PLAN DE IGUALDAD: algunas actividades están hechas pero queda mucho por desarrollar. Hay un informe sobre la opinión de los jóvenes en el área de igualdad. Sería muy simple, y es necesario desarrollar un diagnóstico sobre la situación de la juventud. Se ha publicado el libro de la historia de la mujer de Busturia pero hemos tenido un problema con una foto (lo ha realizado Ibergrafik y hay que estar con ellos para solucionar los problemas).

PLAN DE EUSKERA ESEP: Este plan hay que desarrollarlo y evaluarlo cada año, para cumplir con los objetivos consensuados con UEMA y la sociedad Bai Euskarari.

DIAGNÓSTICO DE SISTEMAS FORESTAL: aprobado el año 2011. Basada en un criterio de silvicultura sostenible. Es una herramienta para obtener subvenciones en esta materia. Varias de sus acciones están incluidas en el Plan de Acción Local.

PLAN ENERGÉTICO MUNICIPAL: Analiza la situación del alumbrado público y los edificios municipales de Busturia y detalla las acciones y cambios necesarios para lograr la eficiencia. Recoge la planificación y las prioridades para la mejora y las fuentes de ayuda (EVE, IDEA, Dpto. de Medio Ambiente del Gobierno Vasco y de la Diputación Foral).

Una parte está hecha pero hay muchas cosas para continuar mejorando. Este plan es imprescindible para participar en el pacto de Alcaldes y Alcaldesas. Dentro de ese pacto se incrementan las ayudas económicas existentes.

HERRAMIENTAS DE COMUNICACIÓN: Se ha adquirido el

alcaldes y alcaldesas)
KOMUNIKAZIORAKO TRESNAK:
BERRIEN BERRI udal aldizkaria editatzeko programa, IN DESING. Orain arte argitaratutako aleak badute estruktura bat, edozein informazio diseinu horretara egokitzen da oso erres programa horren bitartez.
WEB ORRIALDEAK: Udaletxeko Weba nahiko eguneratuta eta sistematizatuta daroagu Bizkaytik en bitartez ez da ahaztu behar dokumentu guztiak han zintzilikatzea. Turismo web. Diseinatua dago eta edukiak jarrita. Atal batzuk euskaratzeko dagoz.Ingelesez eta frantsezez jartzea komeni da. Egunean egunean eukitzeko arduradunik ez dago (arazorik izan ezkero 2KLik –Gernika). Ingurumeneko weba. Egunean eroateko arduraduna behar da. (pasahitza eta oharrak aparteko eranskinean)

ARTXIBO SISTEMA: Artxiboak eguneratua eta kudeaketa sistematizatua eroateko sistema jarri da. Egunean mantentzea beharrezkoa da. Errejistroa , Epaitegia eta Ekonomia arloen antolaketarako 5S sistema ezarrita dago. Hilero langileek jarraipena egitea komeni da.
KUDEAKETA ARLOAK
HERRI LANAK
LOKALEN BANAKETA ETA EGOKITZAPENA: Ludoteka bukatuta dago. Gaztexea, gazteekin koordinatu beharko dira hobekuntzak. Gizartetxean turismo eta produktu erakusketa punturako egokitzapena falta da. Gizartetxean kokatu daiteke arkitektoaren bulegoa eta euskara teknikariarena horrela batzar gela libratu daiteke. Lokal eskaera berriak dagoz eta tratatu beharko da.

ERAIKUNTZEN SARRERAK: Automatizatu dira udaletxe, gizartetze, eskola, Altamira Kultur Etxe, BBK lonja,Tenis eta Paresi. Falta dira Haur Eskola, Babio, Larrazabale.

IZPILUETA SARRERA : Zabaldu zen baina agian irteteko modua tratutu beharko zen BFAko karreteras sailarekin, jendeak irteera zuzena eskatzen du.

AXPEKO JOLASGUNEA; Ekainaren lehenengoko astean hasiko direla esan digute
LOTU LEKU -SAN KRISTOBAL ARGITERIAREN azpiegitura konpontzeko lanak onartuta dagoz eta lizitatu egin behar dira.
AINGERUBIDEKO KALEFAZIOA; aurrekontua dugu berogailuak eta kaldera berri bat jartzeko baina Berzal aztertzen ari da ea

programa IN DESIGN para editar la revista municipal BERRIEN BERRI. Los números publicados hasta la fecha tienen una determinada estructura y cualquier información es muy fácil de adaptar a ese diseño mediante ese programa.
PÁGINA WEB: La web del Ayuntamiento está bastante actualizada y sistematizada a través de Bizkaitik y no se debe olvidar que allí hay que publicar todos los documentos.
Web de turismo: Está diseñada y con los contenidos. Unas secciones están pendientes de traducir al euskera y convendría traducirlos al inglés y al francés. No hay responsable para mantenerlo al día (si hay problemas 2klik-Gernika).
Web medio ambiente: se necesita responsable para mantenerlo al día (notas y clave en la página adjunta).
SISTEMA DE ARCHIVO: se ha implantado un sistema para la gestión y la actualización del archivo. Es necesario mantenerlo al día. Se ha implantado el sistema 5 S para organizar las áreas de registro, juzgado y economía. Conviene que los trabajadores hagan un seguimiento mensual.
ÁREAS DE GESTIÓN:
OBRAS PÚBLICAS:
REPARTO Y ADECUACIÓN DE LOCALES: la ludoteca está finalizada. El gaztetxe, habrá que coordinar las mejoras necesarias con los jóvenes.
Falta por adaptar el punto de información turística y de exposición de productos en el gizarte etxea. En el gizarte etxea también podrían instalarse la oficina del arquitecto y la de la técnica de euskera, con lo cual se libraría la sala de comisiones. Hay demandas nuevas de locales y se deberán analizar.
ENTRADAS A LOS EDIFICIOS: Se han automatizado el ayuntamiento, el gizarte Etxea, el colegio público, la casa de cultura de Altamira, la lonja de la BBK, las pistas de tenis y el basoetxe de Paresi. Faltan el haurreskola, Babio y Larrazabale.
ENTRADA A IZPILLUETA: Se ha ensanchado pero habrá que tratar con el Dpto. de Carreteras de la Diputación Foral de Bizkaia la forma de salir, ya que la gente demanda una salida directa.
ÁREA DE JUEGOS DE AXPE: nos han dicho que empezarán las obras la primera semana de junio.
ALUMBRADO PÚBLICO LOTU LEKU-SAN CRISTÓBAL. Están aprobadas las obras de reparación de la infraestructura y hace falta licitarse.
CALEFACCIÓN AINGERUBIDE: tenemos presupuesto para la instalación de una caldera y radiadores pero Berzal está analizando si es posible conectarse a la caldera del Ayuntamiento y evitar de esta manera la instalación de otra

udaletxeko kalderatik egin daiteken eta ondoren erabakia hartu beste kaldera bat jarri edo udaletxekoarekin egin.

ONDAREA :

ONDARE ARKITEKTONIKOA: Ezagutzera ematen ahalegindu gara (europar jornadetan parte hartuz, egutegia argitaratuz eta turismo web bitartez). Eraikuntzetan QR kodeak jarri behar dira informazioarekin. 2015eko OEJ parte hartzeko konpromisoa hartuta dago. Labayruk Mapeko errotei buruz bideoa egingo du (euskera aurrekontuan jasota dago) eta urriaren 16an Altamira Kultur Etxean aurkezteko konpromisoa dago. Urriak 17an ibilbide gidatua Ganbe errotatik, Txarapiolaraino.

ONDARE NATURALA ETA ETNOGRAFIKOA. Ezagutzera emateko ahaleginak egin dira baina jarraitu behar da. Web orrian edukiak eguneratuz eta zabalkunde ekintzak antolatuz, martxak, hitzaldiak, publikazioak… Ibilbideen esku-orria diseinatuta dago eta laster iritsiko da udalera, gero banatu egin beharko da. Ibilbideei buruzko bideoa egina dugu 11 Tbrekin . oraindino ez dute entregatu. Gero turismo webean eskegi beharko da.

PARESI EREMUKO BIRGAITZE PROIEKTUA. Eraineko subentzioa, aurrekontuan jasota dago eta esleituta dago. Kronogramaren arabera jaietarako bukatuta egongo da. Obraren gainean egon behar da.

INGURUMENA

BASOEN ERREKUPERAZIORAKO LANAK diagnostikoan oinarrituz eta lortutako subentzioaz Mape ibaiaren ertzetako baso batzuk leheneratu dira jabeen onarpenarekin. “Diagnostiko de los sistemas forestales de Busturia” dokumentuan agertzen diren beste ekintzak egiten jarraitu beharko zen.

IBAIEN KUDEAKETA. Urari dagokio ibaien kudeaketaren parterik handiena, baina gure aldetik Ibaialde proiektuan parte hartu dugu informazioa zabalduz eta kontzientziazioa areagotuz (ibaiertzetako basoaren liburua publikatu da). Urarekin hitzarmen bat sinatu da erreken mantenurako ekintza plana oraindino zehaztu barik dago , eurekin batu behar da. Malbeko obra bukatu barik dago eta konpromisoa bete dezaten ahalegindu behar da.

ENERGIA

ERAGINKORTASUNARI BEGIRA: argiak ledetara aldatuta dagoz eraikuntza publikoetan eta hainbeste argiteri publikoko farola soltetan. Prozesu honekin jarraitzeko PEM ek markatzen digu ekintzak eta lehentasunak.

KONTSUMOEN MONITORIZAZIOA , jarrita dago Udalan ,

caldera.

PATRIMONIO:

PATRIMONIO ARQUITECTONICO: Nos hemos esforzado en darlo a conocer (hemos participado en las Jornadas Europeas, publicado un calendario y la página web). En los edificios habría que colocar un código QR con su información. Está tomado el compromiso de participar en las Jornadas Europeas de Patrimonio de 2015. Labayru realizará un vídeo sobre los molinos del Mape (previsto en el presupuesto de euskera) y está previsto presentarlo el 16 de octubre en la Casa de Cultura de Altamira. El 17 de octubre habrá una salida guiada desde el molino Gambe hasta Txarapiola.

PATRIMONIO NATURAL Y ETNOGRÁFICO: Nos hemos esforzado en difundirlo pero hay que continuar. Actualizando la página web y difundiendo las acciones organizadas, marchas, conferencias, publicaciones… El folleto de los senderos está diseñado y pronto llegará al Ayuntamiento, tras lo cual habrá que repartirlo. El vídeo de los senderos está realizado con 11TB, aunque no nos lo han entregado. Luego habrá que colgarlo en la página web.

PROYECTO DE REHABILITACION DEL PARAJE DE PARESI. Está previsto en el presupuesto con subvención de EREIN y adjudicada la obra. Según la previsión del cronograma estará finalizada para las fiestas. Hay que estar controlando las obras.

MEDIO AMBIENTE:

TRABAJOS DE RECUPERACION DE LOS BOSQUES. Basándose en el diagnóstico y en base a una subvención recibida se han recuperado unos bosques de la ribera del Mape con la conformidad de los propietarios. Habrá que seguir ejecutando otras acciones previstas en el “Diagnóstico de los sistemas forestales de Busturia”.

GESTION DE LOS RIOS. La mayor parte de la gestión de los ríos le corresponde a URA, pero por nuestra parte hemos tomado parte en el proyecto Ibaialde, difundiendo la información y aumentando la concienciación (se ha publicado el libro sobre los bosques de ribera). Se ha firmado un convenio con URA y todavía está sin concretar el plan de acciones de mantenimiento, ya que hay que reunirse con ellos. La obra de Malbe está sin terminar y hay que esforzarse en que cumplan su compromiso.

ENERGIA

CON MIRAS A LA EFICIENCIA: se han sustituido por leds las lámparas de los edificios municipales y luminarias aisladas del alumbrado público. Para continuar con este proceso el PEM nos marca las acciones y prioridades.

MONITORIZACIÓN DE LOS CONSUMOS: está implantado en el Ayuntamiento, Colegio Público y Casa de Cultura de Altamira

Eskolan eta Altamiran Kultur Etxean (jarraipena web aren bitartez. www.esetec.es).

OCAk egiten Joan gara etab. egiten jarraitu beharko da urtero aurrekontu zati bat horra dedikatuz, baina obrak egiten direnean kontuan hartu kontsumo (edo potentziak) jaitsiz gero ez gaude behartuta OCAk egitera beraz …

SAN KRISTOBAL–ALTAMIRA AZPIEGITURA ELEKTRIKOA hobetzeko estudioa eginda dago, eta erremaneteko diruarekin Lotu Leku San Kristobal geltokiraino obra lizitatuko da. Kontuan izan obra zibilean , beste argi lerroak ere lurperatzea ondo egongo litzatekeela. Luminariak aldatzeko subentzioa eskatuta dago BFAko ingurumen sailean.

SUMINISTRO ELEKTRIKOA lizitatzeko ofertak eginak daude. Ekainaren 3an zabalduko da bigarren sobrea. Espero dugu hemendik aurrera Busturin kontsumitzen dugun elektrizitate guztia jatorri berriztagarrikoa izatea.
HONDAKINEN KUDEAKETA:
ORGANIKOA bereiztua batzeko Presapeko eremua, Axpeko konpostera eta edukinontzi marroiak jarri dira.Presapeko eremua ortuekin osotu da zikloa betetzeko eta bertan kokatuko dira ere mota guztietako edukinontziak bilketa selektiborako.
BIRZIKLATZE KOPURUAK Ikusirik , sentsibilizazio kanpainekin eta datuak emoten jarraitu behar da birziklapen tasa igotzeko.
ADMINISTRAZIO ARLOA
HERRIKO MANTENU ETA GARBIKETA Langileak abendurarte kontratatua utzi ditugu beraz lana jarraitzea besterik ez dago. Tenis pistetako itoginak konpontzeko eskatutako subentzioa ez digute eman, beraz langileekin egin beharko da apaño bat. Altamira elizako bankua konpontzeko agindua emanda dago. Beste bankuekin pentsatu zer egin, konpondu , aldatu? Zuek ikusi.

IKASTAROEN ANTOLAKETA .
ORDAINKETA SISTEMA; Aurton erabili den sistema hileroko ordainketen bitartez ez da egokia izan edozein momentuan bajak gertatzen direlako eta zor handiaz geratzen da udala.

MONITORE KONTRATUA; kontrataziorako prozesua publikoa izan beharko zen beste langileena bezala, ikastaroetako monitore guztiek ere udaleko nomina dutelako. (Monitoreen soldatak, beste langileenekin konparatuz askoz altuago dagoz eta hori errebisatu beharko zen)

(se puede hacer un seguimiento a través de la web www.esetec.es).
OCAs: Se han ido haciendo y se tendrán que seguir haciendo, destinando una parte del presupuesto a este fin, pero al hacer las obras hay que tener en cuenta que si se reduce el consumo (o potencia), luego no estaremos obligados a pasar las OCAs.
INFRAESTRUCTURA ELECTRICA SAN CRISTOBAL-ALTAMIRA, el estudio de su mejora está realizado y con dinero procedente del remanente se va a licitar la obra entre Lotuleku y el apeadero de San Cristóbal. Hay que tener en cuenta que en la obra civil sería conveniente soterrar también otras líneas de alumbrado. Se ha solicitado subvención a la DFB (Departamento de Medio Ambiente) para la sustitución de las luminarias.
SUMINISTRO ELECTRICO: las ofertas para la licitación están presentadas. El 3 de junio se abrirá el segundo sobre. Esperamos que de aquí en adelante toda la energía que consumimos en Busturia sea de procedencia renovable.
GESTION DE RESIDUOS
ORGANICOS, se ha habilitado el área de Presape, la compostadora de Axpe y se han colocado contenedores marrones. El área de Presape se ha completado con huertos para rematar el ciclo y se colocarán contenedores de recogida selectiva de otros materiales.
PORCENTAJE DE RECICLAJE, teniendo en cuenta la situación actual habrá que continuar con las campañas de sensibilización para incrementar los porcentajes.
AREA DE ADMINISTRACIÓN
MANTENIMIENTO Y LIMPIEZA DEL MUNICIPIO. Hay un contrato laboral con los trabajadores hasta el mes de diciembre, por lo que sólo tienen que seguir con su trabajo. No nos han concedido la subvención para arreglar las goteras de las pistas de tenis, por lo que habrá que hacer un apaño con los trabajadores. Está dada la orden para que arreglen el banco que está en la iglesia de Altamira. Hay que pensar qué hacer con el resto, ¿arreglar, cambiar? Vosotros veréis.
ORGANIZACIÓN DE CURSILLOS.
SISTEMA DE PAGOS. El sistema utilizado este año de cobrar mensualmente no es el adecuado porque los alumnos pueden darse de baja en cualquier momento y el Ayto. queda con grandes deudas.
CONTRATO DE MONITORES. El proceso de contratación de monitores debería ser público como en el resto de personal, porque los monitores de cursos están en nómina por el Ayto. (Los sueldos de los monitores son mucho más elevados comparando con el resto de empleados y eso hay que revisarlo).

LANGILEGOAREN KUDEAKETA :
Langileen oporrak oraindino zehaztu barik dagoz. Bulegoan oporren antolaketaren arabera ordezko bat jartzen da administrazioko langileen lan poltsatik.
Animatzaile soziokulturalaren ordezkoetarako lan poltsa barematua dago. Oporrak noiz hartzen esaten duenean, lehenak ordezkatuko du.
Euskaraz jolastu proiekturako deialdia dagoeneko argitaratuta dago bai parte hartzaientzako arauak zein monitoreentzako.

TRAMITE ADMINISTRATIBOAN DAGOZEN GAIAK
Administrazio kontratuak Errebisatzeko: Eremu berdeak (Lantegi Batuak), Eraikuntzen garbiketa (Garnika), Korreos, hirigintza aholkularitza, Lege aholkularitza,
Dokumentuak udaletxean erregistratzeko EJrekin dekogun hitzarmena errebisatu behar da, herri guztietatik datoz Busturire eta udala kolapsatu egiten da. Bakarrik busturitarrentzako zerbitzua izatea eskatu beharko zen.
Haur Eskola, barrakoiak kendu eta 10 umerentzako eskaintza formalizatzeko hitzarmena
Larrazbaleko etxearen alokairurako deialdia egin barik dago. Egitearen komenientzia aztertu behar da.
Etxebizitza; Presapeko etxeak eta Agarreko proiektua Eusko Jaurlaritza esku dago momentu honetan, euren erantzunaren zain.
Sakonetako argi-lerroak lurperatzea Iberdrolak bere lerroak lurperatuko ditu udalak obra zibila egiten badu. Hori egiteko terreno batzuk espropiatu behar dira . BFAn eskatuta dago lan hau egiteko.
Altamira – San Kristobal errotonda. Aldaketa puntuala egin zen, BOE argitaratu zen ZDUren aldetik alegazio bat jaso zuen. HAPOren onarpenerako epeak eta aldaketa puntualerako epeak berdinak zirenez, ez zen alegazioa erantzun eta ez zen tramitazioa aurrera eroan.

EPAITEGIETAN DAGOZEN GAIAK
Pagozarretako bidearen auzia: Juezaren erabakiaren zain gaude.
Larrazabaeko legez kanpoko etxe prefabrikatuen auzia,; Patronatuko txostenaren zain gaude.
Giza eskubideen kartelaren auzia. Errekurrituta dago eta oraindino ez dugu erantzunik izan.
Españako bandera; Aurreko balkoian Jartzeko agindua dago, baina erdaraz bakarrik etorri zenez , euskera bidaltzeko

GESTIÓN DEL PERSONAL
Las vacaciones del personal están todavía sin concretar. En las oficinas, según la organización de las vacaciones, se contrata una persona para sustituir utilizando la bolsa de trabajo de administrativos.
Para las sustituciones de la animadora socio-cultural está realizada una baremación de una bolsa de trabajo. Cuando comunique cuándo va a disfrutar de las vacaciones, le cubrirá el primero de la baremación.
La convocatoria para el proyecto de “Euskeraz olgetan” está publicado tanto para los participantes como las bases para los monitores.
ASUNTOS QUE SE ENCUENTRAN EN TRÁMITE ADMINISTRATIVO
Contratos administrativos que se encuentran pendientes de revisión**:** Zonas verdes (Lantegi Batuak), limpieza de edificios (Garnica, S.A.), correos, asesoramiento urbanístico, asesoramiento legal…
Hay que revisar el convenio suscrito con el Gobierno Vasco para registrar la entrada de documentos en el Ayuntamiento, ya que vienen personas de otros municipios y se colapsa el servicio. Debería ser sólo para vecinos de Busturia.
Guardería: quitar los barracones y formalizar el convenio con una oferta de 10 alumnos.
Está sin convocar el alquiler de la vivienda de Larrazabale. Hay que analizar la conveniencia de hacerlo.
Vivienda: las viviendas de Presape y el proyecto de Agarre en este momento están en manos del Gobierno Vasco, cuya respuesta se espera.
Soterramiento de la línea eléctrica aérea en Sakoneta. Iberdrola soterraría su línea si el Ayuntamiento hace la obra civil, pero hace falta expropiar algunos terrenos. Está solicitada a la Diputación Foral que haga esta obra.
Rotonda Altamira-San Cristóbal. La modificación puntual se hizo, se publicó en el BOB, ZDU presentó una alegación, como los plazos de la aprobación del PGOU y de la modificación puntual iban a coincidir no se respondió a la alegación ni se continuó con la modificación.
ASUNTOS QUE ESTAN EN LOS JUZGADOS
El juicio sobre el camino de Pagozarreta: se está a la espera de la decisión del juez.
El juicio sobre las casas prefabricadas ilegales de Larrazabale, se está a la espera del informe del Patronato.
Juicio por el cartel de los derechos humanos. Está sin resolver el recurso interpuesto.
Bandera de España: hay orden de colocarla en el balcón frontal del Ayuntamiento, pero como solamente venía en castellano, se ha solicitado que se envíe en euskera.

eskatu dugu.
San Antonio enklabea. Madrileko Tribunal Supremoan dago.

AURREKONTUAREN EGOERA
Ordaintzeko hitzarmenak
Irabazi asmorik gabeko erakundeei Hitza, Lurgaia, Euskal fondoa, ……
Familiei laguntzak euskera, musika , haur Eskola eta Gernika eta Bermioko kirol patronatuetarako ordainketak , dagokien epean egiteko dagoz.
Subentzioak
Lanbide turismo teknikaria kontratatzeko Onartu digute diru laguntza eta deialdia zabaldu behar da kandidatuak aurkezteko.
Erein, Paresiko eremua hobetzeko eman digute diru laguntza eta obrak hasita dagoz.
Altamira Kultur Etxeko akzesibilitatea. Diru laguntza eman digute. Hurrengo taldeak erabaki beharko du onartu eta obra egin edo dena dela.
Emakunde , Busturiko Emakumeen historiako liburua argitaratzeko diru laguntza eman digute
Astilleros -S.Kristobal argiak aldatzeko eraginkorragoak jarriz. Ingurumen saila Ag 21- eskatuta dago , erantzun barik oraindino.
PEM EVEri eskatzeko deialdia zabalik dago.
Kirol azpiegiturak konpontzeko . tenis pistetako konponketetarako diru laguntza ez digute eman.

REMANENTEA (180.000)
Axpeko jolasgunea (11.300)
Altamira San kristobal Argiteria (100.000)
Aingerubide kalefakzioa (25.000)
Mediku etxearen bikoizketarako aurrekontua dago. Obra hau komenigarria da efizientzia aldetik gasturik altuena duen eraikuntza delako eta beste alde batetik, etxe bi lortuko genituzkelako alokairurako bat barik.
Haur Eskola handitzeko aukerak aztertzeko dagoz eta erabaki bat hartzeko.

Enclave de San Antonio: está en el Tribunal Supremo de Madrid.
SITUACION PRESUPUESTARIA.-
Convenios para pagar
A instituciones sin fines de lucro, Hitza, Lurgaia, Euskal Fondoa,…
Las ayudas a familias, euskera, música, guardería y patronatos de los polideportivos de Bermeo y Gernika se abonarán en las fechas que corresponda.
Subvenciones
Se nos ha aceptado la petición de contratación de un técnico de turismo y hay que extender la oferta para que se presenten candidatos.
Erein, nos han dado ayuda para mejorar el área de Paresi y han comenzado las obras.
Accesibilidad de la Casa de cultura de Altamira. Nos han dado subvención. Corresponderá a la próxima corporación decidir si se ejecutan las obras o que hacer.
Emakunde, nos han concedido subvención para la publicación del libro sobre la historia de las mujeres de Busturia.
Alumbrado de Astilleros-San Cristóbal, poner renovables. Están solicitados del Departamento de Medio Ambiente, por Agenda 21 y está sin resolver.
Plan Energético Municipal, está abierto el plazo para solicitar del EVE.
Reparación de infraestructuras deportivas, no nos han concedido subvención para reparar las pistas de tenis.
REMANENTE (180.000)
Zona de juegos de Axpe (11.300)
Alumbrado Altamira-San Cristóbal (100.000)
Calefacción de Aingerubide (25.000)
División de la vivienda del médico, hay presupuesto. Esta obra sería conveniente por motivos de eficiencia ya que es uno de los edificios que tienen más costo y porque además se conseguirían dos viviendas para alquiler.
Ampliación de la guardería, hay que analizar las alternativas y tomar una decisión.

**6.- Alegazioa Plan Nagusiari.-**

Osoko Bilkurari jakinarazi zitzaion egiaztatu dela jendaurreko epealdian aurkezturiko alegazio bat, Plan Nagusiaren behin-behineko onarpenaren ostean, galdu egin dela eta ez duela jarraitu gainerako alegazioen izapidetze-prozedura.
Galera hori egiaztatuta, txostena eskatu zaio talde idazleari; honako hau izan da emaitza:

**6.º.- Alegación al Plan General.-**

El Ayuntamiento Pleno fue informado de que se ha comprobado que una alegación presentada en el periodo de exposición al público tras la aprobación inicial del Plan General, se ha extraviado y no ha seguido el trámite del resto de las alegaciones.
Una vez comprobado este extravío se ha solicitado informe al

*equipo redactor con el siguiente resultado:*

***ALEGAZIO-EGILEA*** *José Luis Bilbao Urrutxua*

***ALEGAZIOA:*** *Errepide nagusira irteteko bidea, Kaskantene baserri inguruan, bertan behera uztea, bertako etxebizitzei dakarkien eragina dela-eta.*

***TXOSTEN TEKNIKOA:*** *Proposaturiko bidearen behar funtzional eta egiturazkoa ukaezina da, beste sarbide eta lotune batzuk egotea eta horiek hobetzea alde batera utzita, eta ahalbidetu egiten du bide-sare integratua sortzea, udalerrira iristeko hainbat sarbiderekin. Bidea ez dago 5 metrora, baizik eta 10 edo 12 metrora.*

***ONDORIOA:*** *Alegazioa ez onartzea.*

Hori guztia ikusita, eta txosten teknikoa oinarri (alegazio-egileari helarazi beharko zaio), Osoko Bilkurak aho batez baztertu zuen aurkezturiko alegazioa.

***ALEGANTE*** *José Luis Bilbao Urrutxua*

***ALEGACIÓN****: Suspensión del camino de salida a la carretera general por las inmediaciones del caserío Kaskantene por el impacto que genera a sus viviendas.*

***INFORME TECNICO****: La necesidad funcional y estructural del vial propuesto es innegable, con independencia de que existan y se mejoren los otros accesos y enlaces y permite generar una red viaria integrada y con diferentes posibilidades de acceso al territorio municipal. El camino no se encuentra a 5 metros sino a 10 o 12 metros.*

***CONCLUSIÓN****: Desestimar la alegación.*

A la vista de todo ello, y en base al informe técnico (del cual deberá darse traslado al alegante), el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó desestimar la alegación presentada.

**7.- Galde-eskeak.-**

Ojinaga jaunak, Zain Dezagun Urdaibai elkartearen ordezkariak, "Urdaibaiko garapen iraunkorra lortzeko proposamenak" izeneko agiria aurkeztu zuen, Udaletxeko erregistroan jaso dadin.

Ojinaga jaunak berak proposatu zuen sitsen kontrako tratamenduren bat egitea Udaletxeko Udalbatza Aretoan, une horretan kaltetuta zegoelako udalbatzaren mahaia eta arriskuan zeudelako Inocencia García Asartaren koadro bi, balio artistiko eta historiko handikoak.

Eta besterik gabe, alkate andereak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, alkate andereak eta egiaztatzen dudan idazkariak sinatuta.

**7.º.- Ruegos y preguntas.-**

El Sr. Ojinaga, representante de la asociación Zain Dezagun Urdaibai, hizo entrega de un documento denominado "Urdaibaiko garapen iraunkorra lortzeko proposamenak" para dar entrada en el registro del Ayuntamiento.

El mismo Sr. Ojínaga propuso que se realizase algún tratamiento anti polilla en el salón de Plenos del Ayuntamiento, ya que se encuentran afectados en ese momento la mesa consistorial y corren peligro dos cuadros de Inocencia García Asarta de gran valor artístico e histórico.

Y no habiendo más asuntos que tratar, la Sra. alcaldesa dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, la Sra. alcaldesa y el secretario que certifico.

Alkatea/La Alcaldesa,

Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda

Idazkaria/El Secretario,

Víctor-Martín Amparan Álvarez